



2009ko agorrilaren 17an

HERRIKO KONTSEILUKO  
Jaun-Andereak

Réf. : JMB/MHM – 1204/2009

**2009ko AGORRILAREN 13an, OSTEGUNAREKIN, HERRIKO  
ETXEAN IZAN DEN HERRIKO KONTSEILUKO  
TXOSTENA**

**BERTAN ZIREN** : Guy POULOU, Auzapez Jauna, LOLOM, BERLAN jaunak, GHOSSOUB Anderea, LALANNE Jauna, WATIER DE CAUPENNE Anderea, MACHENAUD Jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU Anderea, URBISTONDOY Jauna, ANCIZAR Anderea, COSTE Jauna, ANIDO, GOURAUD jaunak, BAZERQUE, DUGUET, TAPIA Andereak.

**AHALORDEAK** : DUBARBIER Andereak M. LOLOM Jaunari, HIRIART Jaunak BERLAN Jaunari, CAPDEVILLE Andereak GHOSSOUB Andereari, GOUAILLARDET Jaunak URBISTONDOY Jaunari.

**BARKATUAK** : MINTEGUI Anderea, IBARLOZA Jauna, HARDOY, GLOAGUEN, ORIVE Andereak, ERRANDONEA Jauna, UGARTEMENDIA Anderea, MINTEGUI, MADRID Jaunak.

**BERTAN ZIREN** : BORDENAVE Jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Orokorra, BOYE Jauna, Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaria

**GAI-ORDENA :**

**I/ Gai orokorra**

**1/ Merkatu Publikoa : Dei publikoa Bordagain Dorrearen zaharberritzea (2. zatia)**

**Txostengilea : Auzapez Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die, joan den agorrilaren 4ko bilkura publikoaren karietara, GOURAUD Jaunak hitza hartu zuela 2009ko ekainaren 26an Bordagain Dorreko merkatuak emateko, eta bera ordezkotako gisa bertan izanki, bildu zen Dei Publikoetako Batzordeak hartu duen erabaki bati buruz egin dituen gogoetak azaltzeko.

Bilkura horretan, Batzordeko kideek epez kanpo etorri eskaintza bat onartzea erabaki zuten, eta hori engoitik legeak debekatzen du.

Ondorioz, eta gai honi buruz zalantza guziak baztertzeko, Auzapez jaunak, 2009ko agorrilaren 4ko bilkura publikoan, Dei Publikoetako Batzordearen erabakiak berresteko egin den Herriko Kontseiluak aho batez hartu zuen 17. deliberoa kentzea eta egokia den prozedura bakarraz (7 zbkiko lotea) berriz deliberatzea proposatzen du, negoziatutako prozedura auziaren arrazoina izanki.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko agorrilaren 4ko 17. delibero hori kentzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

Hori egin eta, Auzapez jaunak ondoko delibero testua proposatzen du :

(TAPIA Anderea etortzen da).

Auzapez Jaunak, Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, 2009ko apirilaren 29an gertatu den herriko kontseiluak zion bezala, Bordagain Dorrearen zaharberritzeari buruzko bi kontsulta abian jarriak izan direla :

- ✓ Elektrizitatea loteari egokitua den prozeduran (7 zkiko lotea) emaitzarik gabeko dei publikoaren ondorioz (merkatu publikoetako kodeko 27-3 eta 28 artikulua), 2009ko maiatzaren 7an, argitaratze garaian abian jarritako kontsulta,
- ✓ Prozedura negoziatuan estankotasun lotea (4 zkiko lotea), Tindua loterako (9 zkiko lotea) emaitzarik ekarri ez duen dei publikoaren ondoren (merkatu publikoetako kodeko 31-1-1 eta 65tik 66 arteko artikulua), 2009ko maiatzaren 7an, argitaratze garaian abian jarritako kontsulta.

**Argitaratzeak :**

- 2009ko martxoaren 18ko Sud Ouest Egunkaria
- 2009ko martxoaren 10eko herriko etxeko gunea

**Gutunak hartzeko azken eguna :** 7 zkiko lotea (2009ko ekainaren 11a, 12:00etan) eta 4 eta 9 zkiko loteak (2009ko ekainaren 19a 12:00etan).

**Atxikiak izan diren dozierren kopurua :** 4 dozier 7 zkiko loterako eta 10 dozier 4 eta 9 zkiko loteetarako.

**Dei Publikoetako Batzordea bildu da 1. eta 2. gutun-azalak irekitzeko** 2009ko ekainaren 19an 14:00etan

Hautagai guziak 2. gutunaren irekidurarako onartuak izan dira 2. artikuluan bildutako prezioak hartu ondoren eta obren iraupena engaiamendu aktaren 3. artikuluan (burutze epeak) ; batzordeak eskatu du eskaintzen azterketa egina izan dadin.

**Dei Publikoetako Batzordea berriz bildu da 2009ko ekainaren 26an, 11:30etan**, obralaria, MATVEIEFF Anderea eta AGUERRE Jaunak egin eskaintzen azterketaren txostena

ikertzeko, ondoko atribuzio irizpide haztatuetan oinarriturik (kontsulta araudiaren 4. artikulua) :

- ✓ Prestazioen prezioa (10 gaineko notazioa)
- ✓ Balio teknikoa - Erreferentziak (8 gaineko notazioa)
- ✓ Epeak (4 gaineko notazioa)

Batzordea ohartu da SAPA Sozietateak egin 4zkiko loterako eskaintza epetik kanpo ailegatu dela (2009ko ekainaren 22an) eta ez dela beraz lehiarako onartzen ahal.

Obralariaren txostenari jarraikiz, batzordeak ondoko merkatua ematea proposatzen du :

**Prozedura egokitua :**

- ✓ 7 zkiko lotea – ELEKTRIZITATEA INEOri      Prezioa = 11 818.45 € ZGB

**Prozedura Negoziatua :** dei publikorako batzorde berri baten itxaropenean.

Azalpen honen ondotik eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Dei Publikoetarako Batzordeak 2009ko ekainaren 26an bildurik, 7 zkiko loterako hartu duen erabakia **BERRESTEN DU**.
- Auzapez Jauna merkatuak gorago ozendutako eratzikitzaillearekin sinatzera eta kontsultaren klausulak betearaztera **BAIMENTZEN DU**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

Bilkura 18:15etan bukatua